

GOBIERNO DE NAVARRA

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA,
INTERIOR Y JUSTICIARELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

DERECHOS SOCIALES

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL,
ADMINISTRACIÓN LOCAL Y MEDIO
AMBIENTE

108 haur saharar hartuko dituzte uda honetan familia nafarrek

Barkos Lehendakariak, gaur eguerdian, harrera egin die horietako hogei bati Foru Gobernuaren egoitzan

Martes, 04 de agosto de 2015

Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak, gaur eguerdian, hogei bat sahararri harrera egin die. Guztira, Nafarroako Komunitateko familiek 108 haur saharar hartuko dituzte beren etxeetan uda honetan, ekainaren 26tik abuztuaren 25 era bitartean.

Haurrak, 8-13 urte bitartekoak, Tinduf-eko Errefuxiatuen Kanpamenduan (Aljeria) bizi dira eta "Oporrak bakean" programari esker etortzen dira Nafarroara. Programa horren xedea haur sahararrei tolerantzian eta bakean elkarbizitzeko inguruneak eskaintzea da.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan izan da eta Lehendakariak gain, Miguel Laparra, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak, Badadi Benamar, saharar herriak Nafarroan duen ordezkariak eta José Ochoa, Saharako Lagunen Nafarroako Elkartearen lehendakariak, programa solidarioa antolatzen duen erakundea berau, hartu dute parte.

Barkos Lehendakariak bere hitzaldian Nafarroak Saharako herriarekin duen "adiskidetasun eta konpromiso" handia azpimarratu du eta, baita, "behin betiko konponbidea lortzeko desioa" ere, "etorkizun hobe" bermatuko diena eta hori "justiziaren eta eskubide kolektiboen arrezagutzaren fruitu" izatea nahiko luke.



Barkos Lehendakaria eta beste agintari batzuk abegi egin zaien haur sahararren ordezkariak batekin



Uxue Barkos haur saharar batekin hizketan

Tinduf-en errefuxiatuta dagoen herri sahararra da Nafarroaren Garapenerako Laguntza Ofizialaren hartzaille nagusienetako bat. 2007az geroztik, Foru Gobernuak 3,5 milioi euro bideratu ditu kanpamendu horretara, batez ere, elikadurarako, osasun integralerako eta hezkuntzarako proiektuan bitartez.

Bestalde, Badadi Benamar-ek nafarrek Saharako herriarenganako duten solidaritatea eskertu du. "Laguntza moraleko injezio bat da irauten jarraitzeko, nahiz eta arazo asko eta asko pairatu" aitortu du.